



Bi LGTBIfobia kasu izan dira Iruñean

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 03/06/2024

Batetik, bandera koloreanitzarekin ez diote sartzen utzi pertsona bati Iruñeko Subsuelo tabernara, eta bestetik, ortzadar koloreko bankua bat erauzi eta ibaira jaurti dute.

Media Luna parkean LGTBI kolektiboaren koloreekin margotuta zegoen eserlekua bere tokitik atera eta ibaira jaurti dute azken orduotan, Iruñeako Udalak jakinarazi duenez.

Bestalde, larunbatean, LGTBI taldearen bandera koloreanitza zeramalako ez diote sartzen utzi pertsona bati Iruñeko Subsuelo tabernara. "Ikur ideologikoa" dela argudiatu dio taberna horretako sarreran zen atezainak eta ez dio sartzen utzi. Udaltzaingoak ere gerturatu ziren: "Deus ez egiteaz gainera tabernak hartutako jarrera babestu zuten". Sare sozialetan salatu du bandera zeukan pertsona.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/bi-lgtbifobia-kasu-izan-dira